



GETXOKO GAZTELEKU ZERBITZUAREN JARDUERA COVID-19K SORTURIKO EGOERARA EGOKITZEKO PLANA

1. Sarrera eta planaren testuingurua

COVID-19ren hedapenaren eraginez sortu den pandemia egoerak behartuta, hainbat hilabetetan itxita egon ondoren, uztailearen 2an, Getxoko Udalaren Gazteleku Zerbitzua berriro ere ireki dugu.

‘Normaltasun Berria’ izeneko fasean edo aldian ezarritako gomendioak eta nahitaez bete beharreko arauak men eginda, Getxoko Udaleko Gazteria Zerbitzuak, hau da, Gaztelekuaren bi unitateen (Erromokoa eta Algortakoa) ardura duen arloak, honako dokumentu honetan jaso ditu Gazteleku zerbitzuak, haur eta gazteen tokiko politikak garatzeko funtsezko tresna delarik, bertako jarduera modu seguru eta arduratsuan garatu ahal izateko hartu dituen neurriak.

2. Legezko esparrua

Lehenengo eta behin, nabarmendu behar dugu ez dagoela araudi espezifikorik horrelako zerbitzu komunitarioetarako. Horren orde, badira Eusko Jaurlaritzak emandako hainbat agindu, gure zerbitzuan neurriak ezartzeko orduan erreferentziako lege-esparru gisa hartu behar ditugunak. Zehazki, dokumentu hau agindu horietako bitan oinarritu da:

- AGINDUA, 2020ko ekainaren 10ekoa, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarena, haurren eta gazteen hezkuntza-aisialdiko jarduerari berriro nola ekin arautzen duena.
- AGINDUA, 2020ko ekainaren 18koa, Osasuneko sailburuarena, COVID-19k eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriak buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. Fasea gainditu eta gero



3. Gaztelekuaren jarduera normaltasun berrira egokitzeko hartu diren arauak

- **Prestakuntza**

Gazteleku zerbitzuko hezitzaile guztiek jaso dute “COVID-19ren aurkako arriskuei eta prebentzio-neurriei” buruzko prestakuntza, Instituto Formación Práctica de Riesgos Laborales erakundearen eskutik.

- **Baimenak**

Erabiltzaileak adingabeak direnez, egokitzapen-plan honetaz gain, “Parte hartzeko baldintzen onarpena, informazioa emateko betebeharra eta Getxoko Gazteleku Zerbitzuaren jardueretan parte hartzeko baimen informatua” inprimakia ere emango zaie. Inprimaki hori legezko ordezkariak sinatuta ekarri beharko dute, eta gunera sartzen diren lehen aldian ekarri beharko dute (nahikoa izango da baten ekartzea). Bestela, ezingo dira gunera sartu.

- **Zerbitzuaren edukiera**

Gazteleku zerbitzuaren guneetan, bai Algortako unitatean, bai Erromokoan, edukiera % 60ra mugatuko da. Horrek esan nahi du Algortako unitatearen edukiera 25 pertsonakoa izango dela, eta Erromokoarena 15ekoa, hezitzaileak ere kontuan hartuta.

- **Guneak egokitzea**

Zerbitzuen barruko eremua egokitu da, segurtasun-neurriak bermatzeko. Hala, gunean izan ohi diren aldizkariak, mahai-jokoak eta paperak kendu dira; mahai eta aulki kopurua mugatu da; jesarlekuak baliogabetu dira; altzariak jarri behar diren lekuak lurrean markatu dira; eta, oro har, lokalaren barruan lasaiago egoteko espazioak sortu dira.

- **Garbiketa- eta seinaleztapen-materialak**

Erabiltzaileek maskara jantzita ekarri behar dute, eta une oro erabili beharko dute. Edonola ere, zerbitzuak maskarak ditu behar dituenarentzat. Gainera, disoluzio hidroalkoholikoak jarri dira gune osotik barrena. Hala ere, eskuak xaboiz garbitzea lehenetsiko da.



Era berean, kartelak jarri dira lokal osoan, higiene-neurriei arduraz eusteko garrantzia une oro gogoraraziz. Arduraz jokatzeko beharrari buruzko kontzientziazio-lana lehentasunezkoa izango da zerbitzuaren hezkuntza-helburuen barruan.

- **Guneetara sartzea**

Zerbitzuak eskaintzen dituen guneetara sartzeko, beharrezkoa da alde aurretik eskuak garbitzea. Sartzeko unean, tenperatura hartuko zaie erabiltzaileei. Eta 37,5 °Ctik gorakoa bada, ezingo da gunera sartu. Halaber, erabiltzaile guztien erregistroa (izena eta telefonoa) egingo da, gunera sartzen edo irteten diren unean. Erregistroaren helburua hau da: kutsatzerik egonez gero, kutsatutako pertsona zein pertsonarekin egon den jakitea, osasun-zerbitzuek geroko jarraipena egitea izan dezaten.

Parte-hartzaileak ezin da joan eta ezin du jardueretan parte hartu COVID-19rekin lotuta egon daitekeen sintomarik badu.

Parte-hartzailea ezin da zerbitzura joan eta ezin du jardueretan parte hartu baldin eta hurbileko harremanetan izan bada COVID-19k jotako pertsona batekin (sintomak izan dituzten bizikideen, senideen eta COVID-19k jotako pertsona baten leku berean egon diren pertsonak, gutxienez 15 minutuz, 2 metrotik beherako distantzian) edo haren ondoan izan bada pertsonen arteko tarterik gorde gabe, sintomarik izan gabe ere, gutxienez, 14 egunean.

- **Komunitatearen konpromisoa**

Parte-hartzaileek eta haien legezko tutoreek euren egoera bereziaren ardura hartu beharko dute COVID-19ren aurrean; horrela, baten batek COVID-19rekin lotutako sintomarik badu, ez da zerbitzura joango eta Gaztelekuko arduradunarekin jarriko da harremanetan.

- **Higiene-neurriak**

Guneko tresnaren bat erabiltzen den bakoitzean (ping-pongeko palak, mahai-futbola, bideo-kontsoletako aginteak, ordenagailuetako teklatuak), tresna hori sistemaz desinfektatuko da.



- **Jarduteko protokoloa sintomak antzematen direnean**

Parte-hartzaileraren batek COVID-19rekin bat datozen sintomak dituzenean, edo sintoma horiek jardueran zehar langile batek antzematen dituzenean, parte-hartzailea erabilera bakarreko gela batera eramango da. Gela horrek aireztapen egokia, pedalezko paperontzia, poltsaz hornituta, maskara eta erabili osteko zapiak botatzeko. Era berean, parte-hartzaileari maskara kirurgiko bat emango zaio, bai eta erabiltzailea zaintzen duen helduari ere; familia, tutorea edo dagokion hurbilekoa jakinaren gainean jarriko da, eta osasun-zerbitzuekiko harreman-protokoloa abiatuko da.

Getxo, 2020ko uztailaren 2a
Gazteria Zerbitzua